## GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**7.688**

**Dirulaguntzen deialdia, gizarte zerbitzuen jardueraren helburu nagusi diren pertsonak eta giza taldeak prebenitzen, gizartekotzen eta horiei laguntza soziala ematen diharduten elkarte edo fundazioek programak eta jarduerak aurrera eraman ditzaten laguntzeko.**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak, 2003ko azaroaren 28an egindako bilkuran, elkarte edo fundazioek programak eta jarduerak aurrera atera ditzaten laguntzeko dirulaguntzen deialdi hau onartu eta argitaratzea erabaki du. Hona deialdi hau arautzen duten

OINARRIAK:

LEHENENGOA. Deialdiaren xedea.

1.1. 2004ko laguntzen deialdi publikoari hasiera eman zaio.

1.2. Deialdia onartzeko ebazpena dela eta sortutako gastuei aurre egiteko beste krediturik ez badago edo kreditu egokirik ez badago, deialdi hau eta honen gaineko ebazpena indargabe geldituko dira. Beraz, behin betiko ebazpena ez da finkotzat hartuko eta ez du indarrik izango 2004ko aurrekontuan kreditu nahikorik eta egokirik egon arte.

1.3. Dirulaguntza hauen xedea hau da: itzultzerik gabeko diru laguntzak ematea, gizarte zerbitzuen ekintzaren helburu nagusi diren pertsonen eta giza taldeen prebentziorako, arretarako eta gizarteratzeko programak eta jarduerak 2004 ekitaldian aurrera eraman daitezen laguntzeko.

1.4. Deialdi honen arabera emandako dirulaguntzak indarrean dauden Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2004rako aurrekontuetan ezarritako aurrekontu partidetako kredituei egotziko zaizkie, ondorengo gehieneko zenbatekoekin:

- 1.80204.0400.461.00.03 “Emakumeen Gizarte Sustapenari laguntzeko programa. Ekintza positiboa”, 29.725,00 euroko zuzkidura duena.
- 1.80204.0400.461.00.04 «Elkarteen funtzionamendu gastuei laguntzeko programa», 770.750,00 euroko zuzkidura duena.
- 1.80204.0400.461.00.05 «Boluntarioentzako laguntzen programa», 37.925,00 euroko zuzkidura duena.

## INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**7.688**

**Convocatoria de ayudas para contribuir al desarrollo de programas y actividades de asociaciones o fundaciones dirigidas a la prevención, atención e integración social de las personas y colectivos sujetos preferentes de la acción de los Servicios Sociales.**

El Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social, en sesión celebrada el 28 de noviembre de 2003, ha resuelto aprobar y publicar la presente convocatoria de Ayudas para contribuir al desarrollo de programas y actividades de Asociaciones o Fundaciones, que se regirá por las siguientes

BASES:

PRIMERA. Objeto de la convocatoria

1.1. Se abre la convocatoria pública de ayudas correspondiente al año 2004.

1.2. La presente convocatoria, así como su resolución, estarán sujetas a la condición suspensiva de que en el momento resolutorio exista crédito adecuado y suficiente para afrontar los pagos derivados de su resolución. Por tanto, la resolución definitiva no se considera firme ni gozará de validez hasta que exista crédito presupuestario adecuado y suficiente en el ejercicio 2004.

1.3. Constituye el objeto de estas ayudas la concesión de subvenciones finalistas a fondo perdido para contribuir al desarrollo durante el ejercicio 2004, de programas y actividades dirigidas a la prevención, atención e integración de las personas y colectivos sujetos preferentes de la acción de los servicios sociales

1.4. Las ayudas que se concedan al amparo de la presente convocatoria se imputarán al crédito de las siguientes partidas presupuestarias consignadas en el proyecto de presupuesto del Instituto Foral de Bienestar Social para el ejercicio 2004, y por los siguientes importes máximos:

- 1.80204.0400.461.00.03 “Programa Ayuda Promoción Social de la Mujer. Acción Positiva”, dotada en la cantidad de 29.725,00 euros.
- 1.80204.0400.461.00.04 “Programa Ayudas Asociaciones Gastos Funcionamiento”, dotada en la cantidad de 770.750,00 euros.
- 1.80204.0400.461.00.05 “Programa Ayudas Voluntariado”, dotada en la cantidad de 37.925,00 euros.

1.5. Deialdi honen arabera, 2004ko ekitaldian zehar gauzatutako ekintzak edo programak baino ezingo dira finantzatu.

BIGARRENA. Erakunde onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan ahal izango dira deialdi honen helburuarekin bat datozen jarduerak egiten dituzten irabazteko xederik gabeko elkarte edo fundazioak, baldin eta laguntza eskatzen den zentro edo zerbitzuaren titulartasuna edota kudeaketa beraiei badagokie, eta urriaren 18ko 5/1996 Legeak, Gizarte Zerbitzuen gainekoak, ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Laguntza deialdi honetatik kanpo gelditzen dira, berariaz, hurrengoak:

a) Estatuaren edo autonomia erkidegoaren menpeko zentro eta zerbitzuak, bai eta aurrezki erakundeen eta irabazteko xedea duten erakundeen menpekoak ere.

b) Araban egoitzarik ez duten elkarte edo fundazioak.

c) Eskatzen dituzten laguntzen xede diren programen jarduera eremu geografikoaren barruan Araba sartzen ez duten erakundeak.

d) Jarduera eremu gisa Vitoria-Gasteiz udalerria duten elkarte edo erakundeak.

e) Ganberak, kooperatibak, elkargoak, sindikatuak edo merkatari eta profesionalen elkarteak oro har, eta horiei atxikitako edo horien barruan sartutako talde edo elkarteak, edota plazen % 75 baino gehiago erakunde jakinen bateko kide, langile edo senideentzat gordetzen dituzten taldeak, edo sarrera librea mugatzen duten taldeak.

f) Indarrean den araudian ezarritakoaren arabera dagokien erregistroan izen eman ez duten erakundeak.

g) Aurreko ekitaldietan jasotako dirulaguntzei dagozkien gastuak behar bezala eta ezarritako epeen barruan egiaztatu ez dituztenak.

HIRUGARRENA. Bateraezintasunak.

Deialdi honen barruan, programa berezientzat ematen diren dirulaguntzak eta Arabako Foru Aldundiaren beraren gainerako sailek edo sail horiei atxikitako erakundeek emandako beste edozelako dirulaguntzak bateraezinak dira, erakunde horiek guztiek horretarako berariazko baimena eman ezik.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak (dirulaguntza horrek bakarrik, nahiz beste erakundeek emandakoekin batera) ezingo du inolaz ere gainditu erakunde onuradunak egin beharreko jarduerareren zenbatekoa.

Deialdi honi erantzuteaz gain beste erakunde batzuei xede bererako bestelako dirulaguntzak eskatzen dizkieten erakundeek, orobat, hori adierazi egin behar dute eskabide orrian.

LAUGARRENA. Diruz lagun daitezkeen programak.

4.1. Foru Aldundiak gizarte zerbitzuen jarduera arlo nagusi bakoitzerako adierazi dituen helburuak betetzera bideratuko da dirulaguntzen esleipena, bai eta dagokion partidan kreditua erabilgarri izatera ere.

Bereziki, ekitaldi honetan, foru erakundeak lehentasuna emango dio ondoko helburuak dituzten programak diruz laguntzeari:

- Arabako landa ingurunean gizarte ongizatea sustatzea.
- Herritarren elkartasuna eta partaidetza bultzatzea, gizarte zerbitzuen jardueraren helburu nagusi diren pertsona eta taldeen gizarte sustapenean.
- Senideen arteko laguntza sareak eratzeko bultzagarri eta lagungarri diren programak prestatzea.
- Zenbait erakunde publiko edota pribaturen artean elkarrekin gauzatzeko programak lantzea.
- Talde baztertuak edo baztertuak izateko arriskuan daudenen gizartekotzea sustatzea, ahalik eta maila handienean.
- Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatuko duten programak eta ekintzak sustatzea.

1.5. Únicamente podrán ser objeto de financiación al amparo de esta convocatoria, aquellas actividades o programas que sean realizadas durante el ejercicio 2004.

SEGUNDA. Entidades Beneficiarias

Podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las asociaciones o fundaciones sin ánimo de lucro cuyas actividades coincidan con el objeto de esta convocatoria y a quienes corresponda la titularidad y/o gestión del centro o servicio para el que se solicita la ayuda, siempre que reúnan los requisitos establecidos en la ley 5/1996 de 18 de octubre sobre Servicios Sociales.

Quedan expresamente excluidos de acceder a esta convocatoria de ayudas:

a) Los centros y servicios que dependan del Estado o de la Comunidad Autónoma, así como los dependientes de las entidades de ahorro y entidades lucrativas.

b) Las Asociaciones o Fundaciones que carezcan de sede en el Territorio Histórico de Álava.

c) Las Entidades u Organizaciones que no incluyan al territorio alavés dentro del ámbito geográfico de actuación correspondiente a los programas para los que se soliciten ayudas.

d) Las Asociaciones o Entidades cuyo ámbito de actuación coincida con el del municipio de Vitoria-Gasteiz.

e) Las Cámaras, Cooperativas, Colegios, Sindicatos o agrupaciones de comerciantes y de profesionales en general, así como los grupos o asociaciones adscritos o integrados en las mismas o aquellos grupos que reserven más del 75% de sus plazas a las personas miembros, empleadas o familiares de alguna institución determinada o que limiten la libre voluntad de ingreso en los mismos.

f) Las entidades que no estén inscritas en el registro que, de acuerdo con lo establecido en la normativa vigente, les corresponda.

g) Quienes no hayan justificado suficientemente y en los plazos previstos los gastos correspondientes a las subvenciones recibidas en ejercicios anteriores.

TERCERA. Incompatibilidades

Las subvenciones que se concedan para programas específicos al amparo de esta convocatoria serán incompatibles con cualesquiera otras ayudas económicas o subvenciones a que puedan acogerse quienes se beneficien de las mismas en otros Departamentos de la propia Diputación Foral de Álava u Organismos adscritos a esto, salvo que expresamente haya sido autorizado conjuntamente por los Organismos afectados.

El importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras entidades, supere el costo de la actividad a desarrollar por la entidad.

Asimismo, las entidades que, además de acceder a la presente convocatoria, soliciten para la misma finalidad subvenciones o ayudas a otros organismos están obligadas a hacerlo constar expresamente en la solicitud.

CUARTA. Programas subvencionables

4.1. La asignación de las subvenciones estará orientada al cumplimiento de los objetivos señalados por la Diputación Foral para cada una de las áreas preferentes de actuación de los Servicios Sociales, así como a la disposición de crédito en la partida correspondiente.

De forma particular, el Instituto Foral dará prioridad en el presente ejercicio a la subvención de aquellos programas que se dirijan a:

- Promover el bienestar social en el medio rural alavés.
- Potenciar la solidaridad y participación de la ciudadanía en la promoción social de las personas y grupos sujetos preferentes de la acción de los servicios sociales.
- Elaboración de programas que potencien y favorezcan la creación de redes de apoyo entre familiares.
- Elaboración de programas conjuntos realizados entre varias entidades públicas y/o privadas.
- Promover la máxima integración social de colectivos desfavorecidos o en riesgo de exclusión.
- Promover programas y acciones que garanticen la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

- Gizarte zerbitzuen jardueraren behar handiena duten pertsonak baliabide komunitario arruntetan —eta ez berezietan— parte hartzea eta sartzea sustatzen duten programak edota ekintzak.

4.2. Honako kasu hauetarako emango dira laguntzak:

- Zentro eta zerbitzuen mantentze-lanak.
- Pertsona zaharrak, elbarritasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten pertsonak, emakumeak eta baztertzeko arriskuan dauden taldeak lagundu eta gizartekotzeko programak garatzea.
- Arabako landa eremuan komunitatearen garapena sustatzea.
- Boluntario lana eta gizarte ekimena sustatzea.
- Arabako landa eremuan drogen menpetasunari aurrea hartzea.

Ez dira diruz lagunduko ekipamendua erosteak, eraberritze-lanek edo erakunde eskatzaileek egindako bestelako inbertsioek eragindako gastuak.

BOSGARRENA. Lankidetza konpromisoa.

Deialdi honetako dirulaguntzak jasotzeak berekin dakar erakunde onuradunaren konpromisoa foru erakundearekin lankidetzan aritzeko, oinarri hauetan adierazten den moduan eta, hala dagokionean, emakida hitzarmenean xedatzen den moduan.

Laguntzaren helburua den zerbitzu, programa edo ekintzaren berezitasunekin erakundeak izan beharreko begirunetik abiaturik ezarriko da lankidetza hori.

SEIGARRENA. Eskabideak aurkeztea.

Deialdi honetako dirulaguntzak jasotzeko eskabideak betetzeko kasu bakoitzari dagozkion ereduak erabili behar dira. Eredu horiek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean daude eskuragarri (Diputazio kalea, 13, Vitoria-Gasteiz).

Eskabideak behar bezala beteta aurkeztuko dira aurreko paragrafoan aipatutako tokian. Eskabideak 30/1992 Legeko (Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) 38. artikuluan onartutako eran ere aurkez daitezke, 4/1999 Legean idatzita ageri den eran. Eskabideekin batera, aipatutako bulegoan aurkezteko unean, laguntza mota bakoitzerako eskatzen diren jatorrizko agiriak eraman behar da.

Deialdi honi buruzko informazio guztia Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean eskura daiteke, ondorengo telefonoa edo faxa erabiliz:

Telefonoa: 945 15 10 15.
Faxa: 945 12 10 74.
Edo posta elektronikoko helbide honetan:
ifbsayudasins@alava.net

ZAZPIGARRENA. Aurkezteko epea.

Oinarri hauetan onartutako dirulaguntzak 2004ko urtarrilaren 31ra arte eskatu ahal izango dira.

Salbuespen gisa, eta horretarako aurrekontu kreditu erabilgarririk bada, lehen zehaztutako epetik kanpo —inolaz ere ez 2004ko abenduaren 31 eta gero— izapidetzeko onartu ahal izango dira eskabideak. Halakoetan, nahitaezkoa izango da erakunde eskatzaileak laguntzetarako beharrizanak zehaztutako epea igaro eta gero sortu direla egiaztatzea, bai eta indarrean den araudiaren arabera beharrizan horiek egiaztatzen dituzten arrazoi frogagarriak daudela ere.

ZORTZIGARRENA. Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Eredu ofizialaren araberako eskabidea, erakundearen ordezkariak (edo erakundea ordezkatzeko boterea duenak) sinatuta. Eskabide horretan, besteak beste, hurrengo datuak azalduko dira:

- Erakundeari eta erakundea ordezkatzen duen pertsonari buruzko datuak.
- Erakunde eskatzaileak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin elkarlanean aritzeko konpromisoa.
- Eskabidea sinatzen duenaren ordezkatzeko ahalmenaren egiaztagiria, eta erakundeko zuzendaritza batzordearen ziurtagiria, hitzarmena dela eta.
- Eskatutako, aurreikusitako edo jasotako bestelako dirulaguntzen zerrenda.

2. Erregistroaren, estatutuen eta zuzendaritza batzordearen eraketaren ziurtagiriak.

- Programas y/o acciones que apoyen o prioricen la participación y la incorporación social de las personas preferentes de la acción de los servicios sociales a los recursos comunitarios ordinarios, no específicos.

4.2. Las ayudas se concederán para los siguientes supuestos:

- Mantenimiento de centros y servicios.
- Desarrollo de programas dirigidos a la promoción e integración social de personas mayores, personas con discapacidad física, psíquica y/o sensorial, mujeres, y aquellos colectivos en riesgo de exclusión o marginación.
- Promoción del desarrollo comunitario en la zona rural alavesa.
- Promoción del voluntariado y la iniciativa social.
- Prevención de las drogodependencias en la zona rural alavesa.

No serán objeto de subvención los gastos ocasionados por la compra de equipamiento, reformas u otras inversiones realizadas por las entidades solicitantes.

QUINTA. Compromiso de colaboración

La concesión de ayudas de esta convocatoria conlleva el compromiso por parte de la entidad beneficiaria de colaborar con el Instituto Foral en los términos que se señalan en las presentes bases y, en su caso, en la forma que se determine en el acuerdo de concesión.

Dicha colaboración se establecerá siempre partiendo del respeto por parte del Instituto a las peculiaridades del servicio, programa o actividad para la que se solicita ayuda.

SEXTA. Presentación de las solicitudes

Las solicitudes para concurrir a las ayudas objeto de esta convocatoria se formalizarán en los correspondientes modelos que para cada supuesto se facilitarán en el Instituto Foral de Bienestar Social, calle Diputación, número 13, de la localidad de Vitoria-Gasteiz.

Las solicitudes debidamente cumplimentadas serán presentadas en el lugar señalado en el apartado anterior. Estas también podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38 de la ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en redacción dada por Ley 4/1999. A las mismas se acompañará, en el momento de su presentación en la oficina expresada, original de la documentación exigida para cada tipo de ayudas.

Cualquier información sobre esta convocatoria será facilitada en el Instituto Foral de Bienestar Social a través de los siguientes medios:

Teléfono: 945 15 10 15
Fax: 945 12 10 74
O en la siguiente dirección de correo electrónico:
ifbsayudasins@alava.net

SÉPTIMA. Plazo de presentación

El plazo para la presentación de solicitudes de las ayudas previstas en las presentes bases se establece hasta el 31 de enero de 2004.

Con carácter excepcional y siempre que exista crédito presupuestario disponible al efecto, podrán admitirse a trámite solicitudes de ayuda fuera del plazo antes referenciado, y que en ningún caso excederá del 31 de diciembre de 2004, debiéndose acreditar en todo caso que las necesidades de las ayudas han surgido con posterioridad al término fijado, así como que existen probadas razones que las justifiquen de acuerdo con la normativa vigente.

OCTAVA. Documentos a aportar

1. Instancia-solicitud, según modelo oficial, suscrita por quien tenga la representación de la Institución o poder suficiente para ello. En dicha solicitud se harán constar, entre otros datos, los siguientes:

- Datos referidos a la entidad y la persona que la representa.
- Compromiso mediante el que la entidad solicitante se compromete a colaborar con el Instituto Foral de Bienestar Social.
- Acreditación del poder de representación de quien firma la instancia y certificación del acuerdo por la Junta directiva de la entidad.
- Relación de otras subvenciones demandadas, previstas o recibidas.

2. Certificados de Registro, Estatutos y Composición de Junta Directiva.

Erakunde eskatzaileak hau aurkeztu behar du: indarrean den araudiaren arabera erakundeari dagokion Erregistro Ofizialean izena emana duela ziurtatzen duen agiria, eta estatutuen eta zuzendaritza batzordearen eraketaren fotokopia. Hori ez da beharrezkoa, ordea, aurreko ekitaldietan aurkeztu bazen, eta orduz geroztik aldaketarik ez bada izan.

1983ko abenduaren 19an Foru Aldundiak emandako Erabakiaren bitartez xedatutako Gizarte Gaietarako Sailaren Elkarteen Erregistroan izena emana duten elkarteek ez dute aurreko lerroaldean adierazitako ziurtagiririk aurkeztu behar, baldin eta aldaketak modu fedeemailean jakinarazi bazaizkio sail horri.

3. Programatutako ekintza guztien txosten-memoria, eta ekintza horien diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua, bai eta ekintzak finantzatzeko dauden baliabideak (ematen diren eskabide agiriekin doan eredua).

4. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak.

Dirulaguntzak eskatzen dituzten erakundeek, soldatapeko langileak dituztenean, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko dute, non egiaztatzen den Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela, edota, hala dagokienean, betebehar horietatik salbuetsita daudela.

Foru erakundeak ofizioz eskatuko dizkio foru ogasunari erakunde eskatzaileak bere zerga betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak.

5. Soldatapeko langileak dituzten erakundeak: langileen zerrenda, bakoitzaren lanpostua, soldata eta orduak adierazita (emandako eskabidean dago eredua).

BEDERATZIGARRENA. Hutsak zuzentzea.

Epe barruan eta dagokien forman aurkeztutako eskabideei dagokienez, Foru Erakundearen kasuan kasuko Zerbitzuak egiaztatu beharko du ea eskabide horiek laguntzak onartzeko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituzten. Horrela ez bada, hamar eguneko epea emango zaio erakunde eskatzaileari falta diren datuak eta dokumentuak aurkez ditzan. Falta diren datuak edo dokumentuak ez baditu aurkezten, eskabidea artxibatuko da, 30/1992 Legeko (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, 4/1999 Legeak aldatua) 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Foru Erakundeak eskubide osoa du eskatutako dirulaguntzei eta erakunde eskatzaileari buruzko txostenak egoki deritzon erakundeei eskatzeko, bai eta erakundeari berari espedientea osatzeko egoki deritzon datuak, dokumentuak edo azalpenak eman ditzan eskatzeko eta erakunde horrek zehaztutako datuak egiaztatzeko ere.

HAMARGARRENA. Dirulaguntzak emateko irizpideak eta horiek ez emateko arrazoiak

Dirulaguntza ezartzeko eta haren zenbatekoa zehazteko balioztatze irizpideak (Laugarren oinarrian zehaztutako xedeak kontuan izanda) ondokoak izango dira:

A) Laugarren oinarriaren arabera ekitaldi honetan lehentasunezkotzat jotzen diren programak eta ekintzak egitea.

B) Programen garrantzia eta horiek gauzatzeko bermea, eta, hala badagokio, eskainiko diren zerbitzuen kalitatea eta eskura dituzten baliabide materialak (azpiegitura, langileak, eta abar).

C) Erakunde eskatzailearen diru baliabideak, eta eskatutakoaren eta haren baliabideen arteko proportzioa.

D) Ekipamendu egokia duen antzeko eskaintza, programa edo azpiegiturarik dagoen edo ez.

E) Dirulaguntzen xede diren pertsona kopurua eta jardueran izango duten esku-hartze maila, elkarturiko pertsonentzako edo publikorako jardueren artean desberdinduz.

F) Aurreko ekitaldietan egindako programen gauzatze maila eta arrazoiak.

G) Deialdi honetako dirulaguntzen muga aurkeztutako eskabideko proiektuaren gastu garbia izango da.

Eskabideak ukatzeko arrazoiak, berriz, hauek izango dira:

1. Deialdi honen edozein oinarri ez betetzea.

Las entidades solicitantes deberán presentar certificación de estar inscritas en el Registro Oficial correspondiente a su carácter jurídico con arreglo a la normativa vigente, así como fotocopia de los Estatutos y composición de la Junta Directiva, salvo que lo hubieran presentado en ejercicios anteriores y no haya ninguna modificación desde entonces.

Las asociaciones inscritas en el Registro de Asociaciones del Departamento de Asuntos Sociales, establecido por Acuerdo de Diputación de 19 de diciembre de 1983, quedan exentas de presentar la certificación expresada en el párrafo anterior, siempre y cuando los cambios que se hayan producido hubieran sido notificados a dicho Departamento de forma fehaciente.

3. Informe-memoria de cada una de las actividades programadas, así como el presupuesto de ingresos y gastos desglosado de las mismas y los recursos con los que se cuenta para su financiación (modelo incluido en los documentos de solicitud que se entregan).

4. Obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

Las entidades solicitantes de las ayudas, cuando cuenten con personal asalariado a su cargo, deberán presentar certificación actualizada de la Tesorería General de la Seguridad Social acreditativa de estar al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social o, en su caso, exentas de las mismas.

El Instituto Foral recabará de oficio de la Hacienda Foral certificación acreditativa de que la entidad solicitante se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias.

5. Aquellas entidades que dispongan personal asalariado: Relación nominal del mismo, indicando el puesto de trabajo, retribución y dedicación (se incluye modelo en la solicitud entregada).

NOVENA. Subsanación de errores

Por los servicios correspondientes del Instituto Foral se comprobará, respecto de las solicitudes formuladas en tiempo y forma, si se cumplen las condiciones exigidas para el otorgamiento de las ayudas, requiriendo, en caso contrario, a la entidad solicitante para que en el plazo de diez días aporte los datos y documentación precisa con indicación de que, si así no lo hiciere, se archivará su solicitud, de acuerdo con lo previsto en el artículo 71 de la ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en su redacción dada por Ley 4/1999.

Lo dispuesto en el párrafo anterior se entiende sin perjuicio del derecho que corresponde al Instituto Foral a solicitar informes de los organismos que considere oportunos respecto de las ayudas solicitadas y la institución o la entidad peticionaria, así como a reclamar de esta última los datos, documentos o aclaraciones que se estimen precisos para completar el expediente y comprobar los datos especificados por la entidad peticionaria.

DÉCIMA. Criterios para la concesión y motivos de denegación de subvenciones

Los criterios de valoración para el señalamiento de subvención y fijación de la cuantía, sin perjuicio de los objetivos señalados en la base cuarta, serán los siguientes:

A) Elaboración de programas y actividades que, de acuerdo a la base cuarta, se consideren prioritarios en este ejercicio.

B) Importancia y garantías de ejecución de los programas, y en su caso, calidad de los servicios que se vayan a prestar y medios materiales de que disponen (infraestructura, personal, etc.).

C) Los medios financieros de la entidad solicitante y proporción de lo solicitado respecto de los propios medios.

D) Existencia o no de ofertas, programas o infraestructuras similares y con equipamiento adecuado.

E) Número de personas destinatarias y grado de implicación en la actividad, distinguiendo entre actividades para personas asociadas o para el público en general.

F) Grado de cumplimiento y justificación de programas realizado en ejercicios anteriores.

G) El límite de concesión de las ayudas, objeto de la presente convocatoria, será el gasto neto del proyecto de la solicitud presentada.

Por otra parte, los motivos específicos de denegación de solicitudes:

1. Incumplimiento de cualquiera de las bases de la presente convocatoria.

2. Oinarri hauetako edozeinetan eskatzen den dokumentazioa edo haren zati bat ez aurkeztea.

3. Programak hartutako bidea eta Gizarte Zerbitzuen jarduketan lehentasuna duten arloetako bakoitzean Foru Aldundiak finkaturiko helburuak bat ez etortzea.

4. Eskatutako kontzeptua Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde honek ekitaldi honetarako dituen lehentasunen artean sartuta ez egotea, jadanik dirulaguntza jaso duen edo beste sail batzuk finantzatuko duten kontzeptua dela jotzen delako.

5. Aurreko ekitaldietako dirulaguntzak direla eta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde honek eskatu duen zenbatekoaren ziurtagiririk ez aurkeztea edo dirua itzulita ez izatea.

6. Adierazitako lehentasunekin eta aurrekontu erabilgarriarekin bat etorriz, diruz laguntzeko eskatzen diren ekintzak ezin dira sartu deialdi honetan.

7. Eskatutako dirulaguntzak ebazteko aginpidea duen organoaren ustez behar bezala egiatatuta dauden beste arrazoi batzuk.

HAMAIKAGARRENA. Eskaerak aztertu eta ebaztea.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde honen jarduketa alorreko Zuzendaritza Teknikoek, alor bakoitzeko pertsonal tekniko espezializatuak prestatutako txostenak aztertuta, egoki irizten duen ebazpen proposamena formulatuko dute. Proposamen horrek dirulaguntza emateko proposatzen diren erakunde eskatzaileen zerrenda adierazi behar du, bai eta dirulaguntzaren kopurua ere, balioztatzea zehaztuz, balioztatzea egiteko jarraitu diren irizpideekin batera.

Edonola ere, 4 ordu baino gehiagoko prestakuntzarako dirulaguntzetarako eskabideak Gizarte Zerbitzuetako Idazkaritzari jakinarazi behar zaizkio aldez aurretik.

Ebazpenak behar adina arrazoituak izan behar dira, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak emango ditu, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita, gehienez ere hiru hilabetean. Balioetsitako kontzeptu bakoitzean emango den dirulaguntzaren gehieneko kopurua adieraziko dute, eta pertsona eskatzaileei jakinaraziko zaizkie, ebazpen horien kontra aurkez daitezkeen errekurtsoak zehaztuz.

Ebazteko gehieneko epea igaro eta ez bada berariazko ebazpenik eman, dirulaguntza gaitzetsi egin dela ulertu behar da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, 4/1999 Legeak aldatua) 44.1. artikuluan onartutakoaren arabera. Hala ere, legez nahitaez eman behar da ebazpena.

Ebazpen horien aurka, berariazkoak zein ustezkoak izan, aukerako berraztertze-errekutsoa jar daiteke, gorago aipatutako legearen 116. eta 117. artikuluek ezartzen duten epean.

Deialdi honen arabera dirulaguntza emateak ez dakar berekin Gizarte Ongizaterako Sail honek hurrengo ekitaldietan antzeko programei dirulaguntzarik emateko inolako betebeharrik.

HAMABIGARRENA. Dirulaguntzen ordainketa.

Dirulaguntzen ordainketa kasu bakoitzean, dirulaguntzaren izaerari so, ebazpenak xedatzen duen moduan eta epeetan egingo da. Kontzeptu bakoitzaren gastuen justifikazioa ebazpenean onartutako gehieneko zenbatekoa baino txikiagoa bada, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak justifikatutako zenbatekoa baino ez du ordainduko, nahiz eta emandako ebazpenetan beste gehieneko zenbateko bat onartu.

HAMAHIRUGARRENA. Emandako dirulaguntzak aldatzea.

Dirulaguntza jaso duten erakundeek, salbuespen gisa, dirulaguntza onartzeko ebazpena aldatzea eskatu ahal izango dute, diruz lagundutako programaren garapena aldatu edo oztopatzen duten baldintzak agertu badira.

Horretarako, erakunde eskatzaileak idatziz oinarritu beharko du zertarakoa aldatzeko edo desbideratzeko eskaera hori. Idatzia Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari aurkeztu behar dio, 2004ko azaroaren 30a baino lehen. Desbideratze edo zertarako aldaketa hori onartzeko edo ukatzeko ebazpenean, deialdi honetan dirulaguntzetarako ezarritako irizpideak hartuko dira oinarri.

HAMALAUGARRENA. Gastuak justifikatzea.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak —kasu bakoitzean egoki irizten dion eran— egiaztatu ahalko du emandako laguntzak nork eta

2. No aportación de toda o parte de documentación exigida en cualquiera de las bases.

3. La orientación de los programas no coincide con los objetivos señalados por la Diputación Foral para cada una de las áreas preferentes de actuación de los Servicios Sociales.

4. El concepto solicitado no se enmarca dentro de las prioridades elaboradas por este Instituto Foral de Bienestar Social para el presente ejercicio, es un concepto que se considera ya subvencionado o es un concepto susceptible de ser financiado por otros Departamentos.

5. No presentación de justificaciones o no haber procedido al reintegro del importe demandado por este Instituto Foral de Bienestar Social, correspondientes a la aplicación de subvenciones de ejercicios anteriores.

6. De acuerdo a las prioridades expuestas y al presupuesto disponible, las acciones que se solicitan no pueden ser incluidas en el alcance de la presente convocatoria.

7. Otros motivos debidamente justificados a juicio del órgano competente para resolver las ayudas solicitadas.

UNDÉCIMA. Estudio y resolución de las solicitudes

Las Direcciones Técnicas de cada área de actuación de este Instituto Foral de Bienestar Social, una vez estudiados los informes realizados por el personal técnico especializado de cada área, formularán la oportuna propuesta de resolución. Dicha propuesta deberá expresar la relación de entidades solicitantes para las que se propone la concesión de una subvención y su cuantía, especificando su valoración y los criterios seguidos para efectuarla.

En todo caso, las solicitudes de subvenciones destinadas a formación cuya duración sea superior a 4 horas deberán ser informadas con carácter previo por la Secretaría de Servicios Sociales.

Las resoluciones, que deberán estar suficientemente motivadas, se dictarán por el Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social en el plazo de tres meses, contados a partir de la fecha de terminación del plazo de presentación de solicitudes, contendrán las cuantías máximas a subvencionar en cada uno de los conceptos que hayan sido estimados y serán notificadas a las personas solicitantes especificando los recursos que puedan interponerse contra las mismas.

Transcurrido el plazo máximo para resolver, sin que haya recaído resolución expresa, se entenderá que es desestimatoria de la concesión de subvención, de acuerdo con lo previsto en el artículo 44.1 de la LRJ-PAC, en su redacción dada por la Ley 4/1999 sin que ello exima de la obligación legal de resolver.

Contra estas resoluciones, tanto si son expresas como presuntas, cabe interponer recurso potestativo de reposición en la forma y plazos previstos en los artículos 116 y 117 de la LRJ-PAC.

La concesión de una subvención al amparo de la presente convocatoria no comporta obligación alguna por parte de este Departamento de Asuntos Sociales de adjudicar subvenciones en los siguientes ejercicios económicos para programas similares.

DUODÉCIMA. Pagos de las subvenciones

El pago de las ayudas se realizará en la forma y plazos que en cada caso, atendiendo a la naturaleza de la subvención, determine la resolución de concesión. No obstante la cuantía máxima que se haya reconocido en las oportunas resoluciones dictadas al efecto, si la justificación del gasto de cada uno de los conceptos fuere inferior a la cantidad máxima reconocida, el Instituto Foral de Bienestar Social únicamente procederá al abono de la cantidad justificada.

DECIMOTERCERA. Modificaciones de las subvenciones otorgadas

Las entidades subvencionadas podrán solicitar, con carácter excepcional, modificaciones a la resolución de concesión basadas en la aparición de circunstancias que alteren o dificulten el desarrollo del programa subvencionado.

Para ello, la entidad solicitante deberá fundamentar por escrito a este Instituto Foral de Bienestar Social dicha solicitud de cambio de destino o desvío, antes del 30 de noviembre del año 2004. Dicho desvío o cambio de destino se aceptará o no en base a los criterios de subvención aplicados en la presente convocatoria, mediante la correspondiente resolución que se dicte al efecto.

DECIMOCUARTA. Justificaciones de los gastos

Por el Instituto Foral de Bienestar Social podrá comprobarse, en la forma que en cada caso se estime oportuno, el destino y aplica-

zertarako erabiltzen dituen; bai eta diruz lagundutako zerbitzu edo jardueren ezaugarriak, eraginkortasuna eta kalitate maila balioztatu ere.

Laguntzak jasotzen dituzten erakundeek, betiere, diruz lagundutako programa edo jarduera bakoitzeko gastu eta sarreren justifikazioa aurkeztu beharko dute, jarduera bukatzen denetik gehienez ere hilabeteko epean, aurkezteko azken eguna 2005eko urtarrilaren 15a izanik. Justifikazioan, gutxienez, honako hauek sartu behar dituzte:

- Zentroak mantentzeko dirulaguntzetarako:

1. 2004ko ekitaldiko jarduerak deskribatzen dituen memoria.

2. Mantentze lanetarako 2004ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitarteko gastu eta sarreren egoeraren ziurtagiria. Ekitaldi horri dagokion liburu nagusia edo gastu eta sarreren erregistroko liburua.

3. Erakundeek ondorengoen banku-karguen edo ordainagirien fotokopiak aurkeztuko dituzte aurreko egiaztagiriekin batera:

- 2004ko urriko edo azaroko hornikuntzei (argindarra, gasa, telefonoa ...) eta errentamenduei dagozkien fotokopiak.

- Kanpoko zerbitzuen fotokopiak.

- Gainerako kontzeptuetan, 120,00 euroko edo gehiagoko fakturen fotokopiak.

Horretaz gain, honakoak aurkeztuko dituzte kontratutariko langileek:

4. Dauden langileen zerrendaren egiaztagiria.

5. 2004ko azaroko nominaren ordainagirien fotokopiak.

6. Langileen 2004ko azaroko (edo ekitaldi horretan lan egindako azken hilabetea) kotizazioei buruzko TC1 eta TC2 likidazioen fotokopiak, banku erakundeak sigilatuta.

7. Arabako Foru Aldundiari egindako PFEZren likidazioaren kopia, laugarren hiruhilekoaren eta azken laburpenarena (190 eredua). Kopia horretan, soldatapeko langileen zerrenda sartuko da.

8. Beste gastu sozial batzuk egonez gero, horien egiaztagirien kopiak.

- Jarduera eta programetarako dirulaguntzetarako:

1. 2004ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitarteko gastu eta sarrera orokorren egoeraren ziurtagiria. Gastu eta sarrerak jardueraka xehekaturik agertu behar dira.

2. 2004ko ekitaldiko diruz lagundutako jarduera bakoitza deskribatzen duen txostena.

3. Izandako gastu eta sarreren zerrenda, egindako jarduera bakoitzerako.

4. Erakundeek, aurreko ziurtagiri horiekin batera, 120,00 euro edo gehiagoko fakturen fotokopiak ere aurkeztuko dituzte (ikastaro eta lantegietako irakasleak edo hitzaldietako hizlariak ordaintzeko gastuen fotokopiak izan ezik; azken gastu horietan, faktura bakoitzaren fotokopia bidali behar da, zenbatekoa edozein dela ere. Faktura horietan, PFEZeko atxikipenak egin izana jasota egon behar da).

Horretaz gain, honakoak aurkeztuko dira langile kontratatuak egonez gero:

5. Aurreko paragrafoan mantentze-lanen dirulaguntzetarako aipatutako agiriak.

Heziketa jarduerak izanez gero (hitzaldiak, ikastaroak, mintegiak,...), ondorengo hauek ere aurkeztu beharko dira:

6. Bertaratuen laburpen koadroa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskatzen dituen datuak adierazi behar dira.

Egiaztagiriak aurkezteko epea bukatutakoan, erakundeak dagozkion agiriak aurkeztu ez baditu, 10 eguneko epean aurkez ditzan eskatuko zaio, ondorengo hau jakinarazita: epe hori bukatutakoan oraindik ere eskaerari erantzun egokia eman ez badio, justifikatzeko betebeharra ez duela bete joko dela. Arabako dirulaguntzen eta transferentzien Foru Arauan eta deialdi honetako bigarren oinarrian zehaztutako ondorioak izango ditu ez betetze horrek.

ción de las ayudas concedidas, así como evaluar las características, eficacia y nivel de calidad de los servicios o actividades subvencionadas.

Las entidades perceptoras de ayudas están obligadas a presentar en el plazo máximo de un mes desde la finalización de la actividad, y como fecha límite antes del 15 de enero del año 2005, justificación de los gastos e ingresos de cada uno de los programas o actividades subvencionadas, que incluirán como mínimo:

- Para subvenciones de Mantenimiento de Centros:

1. Memoria descriptiva de las actividades correspondientes al ejercicio 2004.

2. Certificado del estado de situación de los gastos e ingresos para mantenimiento desde el 1 de enero al 31 de diciembre de 2004 o fotocopia del libro mayor o libro de registro de gastos e ingresos correspondiente a dicho ejercicio.

3. Las entidades acompañarán a los certificados anteriores fotocopias de los cargos bancarios o facturas correspondientes a:

- Suministros (electricidad, gas, teléfono.) y/o arrendamientos del mes de octubre o noviembre de 2004.

- Servicios exteriores.

- Facturas iguales o superiores a 120,00 euros en el resto de los conceptos.

Además, si existe personal contratado, presentarán:

4. Certificado del listado del personal existente.

5. Fotocopias de los recibos de nómina mensuales correspondientes al mes de noviembre de 2004.

6. Fotocopias de las liquidaciones TC1 y TC2, selladas por la entidad bancaria, relativas a la cotización del personal y correspondientes al mes de noviembre de 2004 (o último mes trabajado en dicho ejercicio).

7. Copia de la liquidación de IRPF a Diputación Foral de Álava, Cuarto Trimestre y Resumen Final (Mod.190) que incluya la relación de personal asalariado de la entidad.

8. Copias de justificantes de otros gastos sociales, si los hubiere.

- Para subvenciones de actividades y/o programas:

1. Certificado-Resumen del estado de situación de los gastos e ingresos generales, por actividades, desde 1 de enero al 31 de diciembre de 2004.

2. Memoria descriptiva de cada una de las actividades subvencionadas correspondientes al ejercicio 2004.

3. Relación de gastos e ingresos habidos, de cada una de las actividades subvencionadas.

4. Las entidades acompañarán a los certificados anteriores fotocopias de las facturas iguales o superiores a 120,00 euros, así como de todos los gastos correspondientes a pago de ponentes de charlas o profesorado de cursos y talleres (sea cual fuera el importe, debiendo reflejar dichas facturas la realización de las correspondientes retenciones de IRPF, en caso de ser necesario).

Además, si existe personal contratado, presentarán:

5. Mismos documentos que los mencionados en el apartado de subvenciones de mantenimiento.

En el caso de que se trate de actividades formativas (charlas, cursos, seminarios...), presentarán además:

6. Cuadro resumen de personas asistentes, señalando los datos que por el Instituto Foral de Bienestar Social le sean oportunamente requeridos.

Si vencido el plazo de justificación, la entidad no hubiese presentado los correspondientes documentos, se le requerirá para que los aporte en el plazo de 10 días, comunicándole que, transcurrido el mismo sin atender el requerimiento, se tendrá por incumplida la obligación de justificar, con las consecuencias previstas en la Norma Foral de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava y bases de esta convocatoria.

HAMABOSGARRENA. Erakunde onuradunen betebeharrak

Arabako dirulaguntzei eta transferentziei buruzko Foru Arauan jasota daude dirulaguntzen onuradun diren erakundeen betebeharrak.

Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeak beharturik daude Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudunek eskatutako edozein informazio ematera.

HAMASEIGARRENA. Gizarte Gaietarako Sailaren babesa.

Laguntzen onuradun diren erakundeek, betiere, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Gaietarako Sailak lagundu duela adierazi beharko dute diruz lagundutako jarduerei buruzko publizitatean.

HAMAZAZPIGARRENA. Aurkatzea

Deialdi hau 2004ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Deialdi honi eta deialditik eratorritako administrazioko egintza guztiei aurka egin ahal izango zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak (4/1999 Legeak aldatua) onartutako kasuetan eta forman.

HEMEZORTZIGARRENA

Deialdi honetako oinarri guztiak otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauan (Arabako dirulaguntzei eta transferentziei buruzkoa) arautakoaren mende egongo dira.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko azaroaren 28a.– Gizarte Gaietarako Saileko diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria, ENRIQUE AGUIRREZÁBAL OTÁLORA.

DECIMOQUINTA. Obligaciones de las instituciones y entidades beneficiarias

Respecto a las obligaciones de las instituciones y entidades beneficiarias se estará a lo dispuesto en la Norma Foral de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava.

Las entidades beneficiarias de las subvenciones están obligadas, así mismo, a facilitar cuanta información le sea requerida por el Tribunal Vasco de Cuentas, Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava u otros órganos competentes.

DECIMOSEXTA. Patrocinio del Departamento de Asuntos Sociales

Las Instituciones y Asociaciones beneficiarias de las ayudas, deberán hacer constar en cuanta publicidad se efectúe de las actividades subvencionadas la colaboración del Departamento de Asuntos Sociales.

DECIMOSÉPTIMA. Impugnaciones

La presente convocatoria entrará en vigor el día 1 de enero de 2004.

La presente convocatoria y cuantos actos administrativos se deriven de ella, podrán ser impugnados en los casos y en la forma establecidos por la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en redacción dada por Ley 4/1999.

DECIMOCTAVA

Las bases de la presente convocatoria quedarán condicionadas en su totalidad a lo que establezca la Norma Foral 3/1997, de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de noviembre de 2003.– El Diputado de Asuntos Sociales y Presidente del Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social, ENRIQUE AGUIRREZÁBAL OTÁLORA.